

## Hizkuntzaren mundua

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-06-29: 2.

Hizkuntza bakoitza mundu bat da. Ez du gizartean komunikatzeko bakarrik balio, badu beste hizkuntzagandik bereizteko joko ere. Gizakia bezala, konplexua da. halere nire gaurko asmoa ez da teorizazioa, neure kasuan jakingarri den alderdiari argi bat piztutzen baizik. Ondo dakigunez, eguneroko prentsa erdaraz izatetik euskarazkoa ere izatera heldu gara. Herriari eskerrak. Norbaitek pentsa dezake, euskaraz gaur EUSKALDUNON EGUNKARIA irakurtzen dutenak eta lehengoarekin jarraitzen dutenak gure herriaren eta inguruaren ikuspegi berdina dutela, eta ez da hala. Bada, hizkuntza bertan bizirik dagoen altxorraz kanpo, garrantzia duen euskal jakintza eta kultura berezirik gure herria, eta hauetara EGUNKARIA berez, deituta bezala, hurbiltzen da, eta hizkuntzarekin adorez besarkatuta dagoen euskal mundu hori egunero deskribatzen du. Alderantziz eta batez ere kazetariak euskararik ez dakienean, euskal mundu horretatik kanpora uzten du bere irakurlea ere. Laburbilduz: 1) Irakurle euskaldunok Euskal Herri osoan bertoko berri gehiago eta sakonago jasotzen dugu, ingurua eta mundua ahaztu gabe. 2) Erderaz ere dakigun euskaldun oro, hobeto, zabalago, ziurrago, informatuak gaude. Aberatsagoak gara. Gertatutakoa: Neu Bilbon egunkari batetan euskararen buru nintzela, idazkuntza burua erdalduna suertatu zitzaidan, eta behin arratseko lanetan esan nion: "'Xalbador' hil da, argazkia lehen orrian". / "Nor da ba 'Xalbador'?". / "Eta bertsolari bati lehen orria, ja!...". Eta kanpoko afontuan utzi zuten. Eta ni ere berarekin.